



**AGINDUA, INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUARENA. HONEN BITARTEZ, URKIOLAKO KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA (KBE, ES2130009) IZENDATZEN DUEN DEKRETU PROIEKTUAREN ETA HARI DAGOZKION KONTSERBAZIO NEURRIEN ALDEZ AURREKO ONARPENA ERABAKI.**

2010eko irailaren 6ko Aginduaren bitartez, Atlantikoko eskualde biogeografikoko kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta Atlantikoko eta Mediterraneoko eskualde biogeografikoetako kontserbazio bereziko eremuak (KBE) izendatzeko Dekretua onartzeko espedientea hastea erabaki zen. Eremu horien artean Urkiolako ES2110009 Batasuneko Garrantzizko Lekua zegoen.

Gaur egun, eremu horrek Naturgune Babestuen tipologia bikoitza biltzen du: alde batetik, 275/1989 Dekretuaren arabera Parke Naturala da eta bestetik, Natura 2000 Sareko eremua da, BIL den aldetik. Beraz, apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Natura Kontserbatzeko Legearen testu bateginaren (NKLTB) 18. artikuluari jarraiki, eremu hori planifikatzeko mekanismoak koordinatu egin behar dira eremuaren plangintza integratuko duen dokumentu bakar batean biltzeko eta horrela, kategoria bakoitzean aplika daitezkeen erregimen desberdinek osotasun koherente bat osa dezaten. Bi tipologiak arautzen dituen dokumentu bakarraren legegintza desideratuma ezin da lortu Parke Naturalen kasuan, tipologia horiek Natura Baliabideak Antolatzeako Plan baten (NBAP) bidez (NKLTBaren 20. artikulua) eta Parke Naturalak Erabiltzeko eta Kudeatzeko Plan Zuzentzaile baten (EKPZ) bidez (NKLTBaren 27. artikulua) arautu behar baitira. Alabaina, bi tresna horiek Naturgune Babestuaren (NB) bi tipologiaren (Kontserbazio Bereziko Eremua eta Parke Naturala) premientzat baliagarriak izan daitezke, nahiz eta biek desberdinak diren helburuei eta edukiei dagokienez.

Gainera, oso kontuan hartzen da Eusko Jaurlaritzak eta Foru Organoek dituzten eskumen konkurrenteak direla-eta, koordinazio-ahalegin berezia behar dela: NBaren deklarazioa Eusko Jaurlaritzari dagokio azken batean (NKLTBaren 19.1 artikulua); Parke Naturalei dagokienez, NBAPa izapidetzea eta onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren 7.a artikulua) eta aldiz, EKPZrako prozedura bifasikoa jarraitzen da, hots, lehenik, foru-organoek izapidetzen dute eta organo horiek onartzen dituzte Parke Naturalaren kudeaketari dagozkion jarraibideak, eta bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak izapidetzen du, araudiari dagokionez (NKLTBaren 29. artikulua). Bestalde, KBEei dagokienez, helburuak eta araudiak onartzea Eusko Jaurlaritzaren eskumena da (NKLTBaren lehen paragrafoko 22.5 artikulua) eta neurriak foru-organoei dagozkie (NKLTBaren bigarren paragrafoko 22.5 artikulua). Nolanahi ere, tresna desberdin horiek guztiak EHAAan argitaratu behar izaten dira beti.

Prozedura honen bidez lortu nahi da RN2000 Gunea ahalik eta lasterren izendatzea eta, horrela, Europako erakundeen aurrean gure betebeharrak betetzea, atzerapenez bada ere. Helburua hirukoitza da: lehenik eta behin, Gunea KBE gisa izendatzea; bigarrenik, Habitaten Zuzentarauaren 6. artikulua KBErako eskatzen dituen kontserbazio-neurriak onartzea eta argitaratzea, horrela, European guri dagozkigun betebeharrak guztiz betetzeko eta azkenik, Parke Naturala arautuko duen EKPZ onartzea.



Hori dela-eta, alde zuzenetik onartzen den Dekretuak zati artikulatu labur bat eta hiru eranskin ditu. Lehen eranskinak KBErako kartografia biltzen du; bigarrenak NKLTBaren 22. artikuluko KBEari soilik dagozkion Eusko Jaurlaritzari zuzendutako aginduak betetzen ditu eta hirugarrenak (Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundien eskumena) helburu bikoitza du aipatutako NKLTBaren 18. artikulua betetze aldera, hau da, Parke Naturalaren EKPZrako eta KBEaren kudeaketa-neurrietarako (foru-eskumena) baliagarria izatea. Gainera, Administrazio eskudunek adostuta erabaki dute EKPZ orok bildu behar duen arau-zati osoa (NKLTBaren 27.a eta 27.b artikulua), Eusko Jaurlaritzak izanik zati hori onartzeko eskumena, eranskinetan modu argian identifikatzea. Dekretu hau behin betiko onartu ondoren, (horrela jasoko da Dekretuaren Xedapen Gehigarri batean), II. eranskina jasoko duen NBAParen aldaketari ekin beharko zaio aipatutako dokumentu bakarra egiteko, betiere NKLTBaren 7. artikuluan aurreikusitako prozedura luze eta konplexua konfiguratzeko izapide prozesalak betez, baina Europarekiko betebeharrak ere beteta.

Urkiolako KBEa dagozkion kontserbazio-neurri egokiekin izendatzearen alde zuzenetik onarpenean oinarrituta (Eusko Jaurlaritzaren eskumena) honako hau esan behar da: prozedura hasi eta beharrezkoak ziren azterlanak egin ondoren, RN2000 Guneari dagozkion eta kontuan hartu diren lege-aldaketa batzuk eragin dituzte 1/2010 Legeak eta 2/2013 Legeak eta haien ondorioz, aipatutako testu bategina sortu da. Gainera, ikuspuntu teknikitik egiaztatu da gune horretan Batasunaren intereseko hamasei habitat daudela, 43/92/EEE Zuzentarauaren I. eranskinean bildutakoak, eta habitat horietako hiruk lehentasunezko izaera dutela. Halaber, leku horretan 43/92/EEE Zuzentarauaren II. eta IV. eranskinetan biltzen diren espezieetako hogeita zazpi espezie daude gutxienez, baita 2009/147/EE Zuzentarauaren I. eranskinean biltzen diren hegazti-espezieetako hamalau espezie ere (gutxienez). Historian zehar gertatutako giza-jarduera biziak Urkiolako paisaia itxuratu du, eta egungo espazioaren banaketa bertatik eratorri da, hein handi batean. Urkiola harkaitzekin lotutako habitat batzuen kontserbaziorako eremu gakoa da, baita pagadi azidofiloen kontserbaziorako ere. Nabarmenezkoa da populazioa finkatuta duten honako hegazti errupikola hauen presentzia: sai arreak (*Gyps fulvus*), belatz handiak (*Falco peregrinus*) eta sai zuriak (*Neophron percnopterus*). Harkaitz-zozo gorrien (*Monticola saxatilis*) eta harkaitz-zozo urdinen (*Monticola solitarius*) finkatutako populazioak ere badaude. Flora interesgarriari dagokionez, hainbat espezieren presentzia nabarmenezkoa da, esaterako, *Narcissus asturiensis* eta *Narcissus pseudonarcissus ssp. nobilis*. Urkiolak biltzen dituen kasuistika bereziak eta Parke Natural bat izateak, komenigarria egiten dute dekretu-proiektu bat berariaz lantzea, mendi-eremu horretarako.

Gainera, Urkiolako KBEa kontserbatzeko tresna prestatzeko lan teknikoak egin direnean egokia dela erabaki da Naturagune Babestuaren eremua handitzea Indusiko Baltzola-Karst inguruko lursailak sartzeko. Baltzolako koba giltza-eremua da Habitat Zuzentarauaren II. Eranskinaren jasota dauden honako kiroptero espezie mehatxatu hauentzat: *Rhinolophus euryale*, *Rhinolophus ferrumequinum*, *Rhinolophus hipposideros* y *Miniopterus schreibersii*. Espezie horien populazioak gutxitzen ari dira kobak kirolerako eta jolasaldirako dituen erabileragatik, oso erraz heltzen baita bertara. Gainera, sartu nahi den eremuan azpimarratzekoak dira Abaro Jentilzubi sistema, balio hidrogeologikoagatik, malda arrokatsu kaltzikolak (8210), artadi kantauriarra (9340) eta txilardi kaltzikolak (4090). Indusiko Karsta EAeko Geologia Interesdun Lekuen Inbentarioan sartuta dago.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea betez, eta jada dekretu-proiektu egituratu bat landu delarik eta 2010eko irailaren 6ko Aginduko planteamenduen arabera, dagozkion izapideei jarraitu behar zaie, erreferentziako Dekretua onartzeko, Esan behar da proiektua salbuetsita dagoela, ez baitu behar genero-inpaktuaren ebaluazioa ezta Emakunderen txostenik ere, organo honek aurreko KBEak izapidetzerakoan esan zuenarekin bat eginez, eta Agindu honen ondorioz egindako legealdaketak administrazio honen egoitzan aurkeztu beharreko memoria ekonomikoan du eragina. Espazio honetarako ere ez da behar Uraren Kontseiluaren txostenik.

Horregatik, 8/2003 Legearen 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

Lehena.- Urkiolako Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE, ES2130009) izendatzen duen Dekretu Proiektua eta hari dagozkion kontserbazio neurriak aldeztatik onartzea.

Bigarrena.- Prozedurarekin jarraitzea eta Agindu hau Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei igortzea, espediente osoaren kopiarekin batera.

Hirugarrena.- Hiru Administrazioen arteko koordinazioarekin jarraitu beharko da, ahal bada, dokumentu osoa jendaurrean elkarrekin erakutsiz, betiere Eusko Jaurlaritzari eta Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei dagozkien zatiak jasota. Proiektu hori Urkiolako Parke Naturalaren Patronatuari igorriko zaio.

Vitoria-Gasteiz,

**INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUA  
LA CONSEJERA DE MEDIO AMBIENTE Y POLÍTICA TERRITORIAL**

Izpta./Fdo.: ANA OREGI BASTARRIKA